

INSPIRARTE PROIEKTUA

INSPIRARTE euskal literatura bultzatzeko ekimen bat da, hiritarren eskuetara eramanez, arte mota hau gure egunerokotasunaren atal bat izan daiten.

Horretarako, Bizkaiko kaleak esaldi literarioz zein poetikoz beteko ditugu, merezi duen garrantzia zein ikusgarritasuna lor dezan. Helburu hau lortzeko, euskal idazleen esaldi literarioak probintzia honen kale desberdinen lurreen margotuko ditugu.

Proiektuak bi atal nagusi izango ditu:

Alde batetik, lurreen margotuko diren esaldiak. Beste aldetik, web-orri bat non esaldi guztien kokapenen mapa agertuko dena.

Proiektu honetan parte hartzeko, esaldiek ezaugarri minimo batzuk bete beharko dituzte:

- Hizkuntza: Euskara.
- Ezin dute drogen kontsumoa, suizidioa edota edozein ekintza bortitzari apologia egin.
- Ez da arrazista, xenofoboa, matxista edo edozein kolektibo (LGTB+, dibertsitate funtzionala, etc.) gutxiesten duen esaldirik onartuko.
- Karaktere kopurua: Gehienez 60 karaktere.

Zuen parte-hartzea oso lagungarria izango litzateke guretzat, danon artean Euskal Herrian sortzen den literatura mugimendu bat sortzeko eta honen garrantzia sustatzeko.

INSPIRARTE TALDEA